



PASTORA INSAUSTI ZUZUARREGI

JOSE LUIS INSAUSTI URIGOITIA

Pastora Insausti Zuzuarregi 1918-ko Abuztuak 1-ean Maddalen kalean jaioetakoa, ama hondarrabitarra eta aita oreretarra, Larrapitxi baserrikoa.

Pastora Oreretan bitzako gaztaroko oroitzapenak oraindik gogoran ditu: Zamalbideko eskola, bere partehartzea Emakumeen dantza taldean, poxpolina bezela; Larzabal-en futbol partiduak, Club Deportivo Touring-eko eskursioak, Avelin-eko jokariak, Samperio, Portu; Kukusklan-eko elkartearen Viteri kalean kokatutakoa, Maddalena, Los Incansables bandarekin dantzaldia, soinuak, txistua eta danbolina, Maddalena irudiaren lekualdaketa ermitatik parrokira eta ondoren udaletxeak haragi eta ogi razioak banatzen zituen kontserba desberdinekin batera behar handieneko familiei.

Bere oroimenean ere oraindik dirau 1933-an gertatutako uholdeak, bereziki bere familiak jasandakoa, Anguleria izenaz ezagututako etxean. Deskantsatzen zeudela gaueko ekaitzaren eraginez itozteko arriskuan egon ziren, baina Facundo bere anaia uretara bota zen txalupa baten bila eta familia guzua salbatzea lortu zuen, bizilagunak desagertutzat zituztenean.

Gerra Zibil-eko ekintza izugarriak eta gogorrak gogoan ditu ere. Bertan bere anaia Esteban, fusilatua izan zen apaiz batekin batera. Facundo, beste anaia, atxilotua eta espetxeratua izan zen eta beranduago langileen batailoira destinatua izan zen.

Bere ariman eta bihotzean jasandako min hau eragina izango zuen fede bitzita onartzeko eta bere besteenganako emana guztiz osoa izateko.

Bere oroitzapenera datoz bonbardaketako irudiak, bere egonaldia familikoekin Bilbon izan zelarik. Gau batean beste zazpi familiekin Berriz-eko Konbentura traslatatuak izango zirela esan zieten, non monjak babeslekua eman zieten Urriak 36-tik Apirilak 37-ra bitartean. Ez du ahazten monja haiekin burututako lanak hainbeste familiei

eta zaurituei emandako laguntzaz.

Baina Oreretara etortzea behartua izan zen bere anaia Esteban-engoerarengatik beldurtua. Hemen da bere anaia fusilatua izan zela esaten dioten momentua. Gertaera honek bere ariman eragin handia izan zuen.

Pastora, iadanik Oreretan, udaletxera egunero azaltzea behartua izan zen. "Campo Rojo" delakotik iritsitakoa izateaz salatu bait zuten.

Bere bokazioa zuzena izanik eta Facundo bere anaiarengatik animatua Berriz-eko konbentuan sartzen da.

Postuladorea hasten du eta 1941-eko Urriak 23-an Bilbora destinatzen dute non bi urte pasa ondoren Berriz-era bueltatzen da. Ondoren Eskoriatza-ra eta Markina-ra destinatua izan zen. Segidan boto perpetuoak eskeintzen ditu emozio handiz esanez: "Has escojido la buena senda, ya nadie podrá apartarte del camino elegido."

Eta 1947-ko egun batean EE.BB.-runtz untziratu zen, beste Santa Margarita orden-eko bost misionera merzenariekin batera eta 25 urte iraun zituen, lehenik Kansas-eko estatuan 3. adineko apostolado batean. Pastorak esan ohi du gaztelaraz hitzegitea debekatzen zirela ingeleza hobeto menperatzeko eta orduan Euskaraz mintzatzen ziren Euskal-Herriatik joandako bost misionerak, barneko erregelei kontrajartzen ez bait ziren.



Kansas-etik Troy-ra destinatzen dute neska mutilekin, gaixoeekin, marginatuekin.. lan bat burutuaz. Troy-en zegoela, Pastora osasun arazoak dituela konturatzen da eta garrantzizko hiru operazio jasatean eta errekuperatzean Nueva York-eko estatura destinatua izan zen, non bi urte pasako ditu mexikarrekin, kubatarrekin eta portorrikeinoekin lanean 3.klaseko hiritarrak kontsideratutakoak.

Arrazismoa, praktika instituzional bezela, EE.BB.-ekiko European zeuden ideiekin txoke egiten zuten.

Pastora, 1972.urtean, Euskal- Herria bueltatzen da osasun arazoengatik eta hiru urte Berriz-en bizi eta gero Gasteiz-era destinatua izaten da, non Urrezko Ezkontzak ospatu zituen 1991-ean.

Nonhai egon dela, bere herria beti bere bihotzean iraun du irekia eta eskuzabala horrela sentitu eta bizitzen du Pastorak.

1993-ko Maddalena Pastorarentzat era berezi batean gogoratuak izango dira. Alde batetik 52 urte eta gero berriro Maddalena bizi ahal izateagatik eta bestetik Uztailak 22-an udaletxeak eta Oreretako herriak eskeiniko dion merezitako homenaldiarengatik.

ZORIONAK IZEBEA